

ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEA

GAIA: 12/2013

ERABAKIA, (...) S.A. SOZIETATEAK (...) ELKARTEAREKIN LAN BATZUK EGITEA ADOSTEKOA DUELA, ETA INTERESDUNA, EUSKO JAURLARITZAN SARTU ARTE, ELKARTE HORREN ZUZENDARITZA BATZORDEKO KIDE IZAN ZELA KONTUAN HARTUTA, “EGOERA IRREGULARREN BAT” SORTZEARI DAGOKIONEZ ETIKA PUBLIKOKO BATZORDEARI (AURRERANTZEAN EBP) PLANTEATUTAKO GAIARI BURUZKOA.

1.- 2013ko abenduaren 3ko idazkiaren bidez, interesdunak kontsulta egin zuen, EBP honetako idazkaritzara posta elektronikoz bidez bidalitako mezu baten bitartez.

2.- Interesdunak bere kontsulta-eskaeran azaltzen du, Eusko Jaurlaritzan sartu aurretik, enpresa pribatuaren kudeaketa eta zuzendaritzaren alorrean garatzen zuela lanbide-jarduera, eta horren ondorioz (...) -ren Zuzendaritza Batzordeko kide zela.

Interesdunak erantsi du Eusko Jaurlaritzan sartu bezain laster utzi zituela zuzendaritzaren alorreko ardura horiek guztiak. Hala eta guztiz, EBP honen irizpidea jakin nahi du, (...) sozietate publikoak (...) elkarrekin lan batzuk egitea adostekoa duela-eta balizko “egoera irregularren bat” sortzeari dagokionez, interesatua aipatu hitzarmenaren sinatzailea ez izan arren, zuzendari nagusiak sinatuko baititu.

3.- “Ohiz kanpoko egoera” honelako kasuetan sor daiteke: interesdunak gaur egun Eusko Jaurlaritzan duen karguak dakar sozietate publikoaren lehendakari izatea, eta kargu hori betetzeko izendatu arte (...) -ko Zuzendaritza Batzordeko kide izan zen (...); horrenbestez, bat etortze hori interes-gatazka baten oinarria izan daiteke.

4.- Etika eta Jokabide Kodearen (aurrerantzean EJK) 16.4 ataleko bigarren tartekian aurreikusitako komunikazio telematikorako mekanismoak baliatuta, EBPk

ERABAKIA:

I.- AURREKARIAK

1- Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak EJK onartu zuen 2013ko maiatzaren 28ko saioan, helburu garbi batekin: politikaren zentzu etikoa berreskuratzea, eta herritarrek beren erakundeengan duten konfiantza lehengoratzea.

Horretarako, aipatutako kodeak Eusko Jaurlaritzako goi-zuzendaritza eragilea osatzen duten

kargu publikodunei eskatu beharreko jokabide, jarrera eta portaerak identifikatzen ditu, haien ekintzak, hala publikoak nola pribatuak, bat etor daitezen aurrez kode horretan finkatutako balio, printzipio eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua da osotasuna eta eredugarritasuna sustatzea, Jaurlearitzaren irudi instituzionala gordez, haren eraginkortasuna sendotuz eta herritarren erakundeenganako konfiantza gutxitu ez dadin ahalegina eginez.

2.- EJK-k oinarrizko bost balio ditu ardatz: osotasuna, bikaintasuna, politika eta kudeaketa bat etorraraztea, lidergoa, eta berrikuntza; bai eta oinarrizko sei printzipio ere: inpartzialtasuna eta objektibotasuna, kudeaketari loturiko erantzukizuna, gardentasuna eta gobernu irekia, zintzotasuna eta desinteres subjektiboa, errespetua eta eredugarritasuna.

Balio eta printzipio horiek ardatz direla, Kodeak hainbat jokabide, jarrera eta portaera jasotzen ditu. Hain zuzen, EPB honek haiek erreferentziatzen hartuta jardun behar du, beren borondatez Kodearekin bat egiten duten kargu publikodunek helarazitako gai eta zalantza etikoei erantzuteko.

Azken alderdi horri dagokionez, Kodearen 16.3. atalak hauxe zehazten du lehen puntuari: “Etika Publikorako Batzordea izango da oharpen, kontsulta eta iradokizunak jasotzeko eskumena izango duen organoa. Halaber, kode honetan ezarritako aurreikuspenetan adierazitako egokitzapen-proposamenak gauzatzeko prozedura jasoko du”. Halaber, atal horren bosgarren puntuak dio Batzordearen zeregina izango dela “Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio zein jokabideen balizko ez betetzei buruzko kexak edo salaketak jasotzea, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzea”.

II.- ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEAK AZTERTZEKO AURKEZTUTAKO GAIA

1.- Interesdunak EPB honen esku-hartzea eskatzen du, bera lehendakari den sozietate publikoak (...)ekin hitzarmenak sinatzeak EJKren aurka egiten den erabakitzeak; izan ere, interesduna elkarte horren Zuzendaritza Batzordeko kide izan zen, Eusko Jaurlearitzan sartu arte, baina ez da bera izango, zuzendari nagusia baizik, hitzarmenen sinatzailea.

2.- Interesdunak gogora ekarri duenez, “(...) historikoki zenbait lan hitzartu ditu Sailarekin” eta zehaztu du orain “pare bat (lan)” hitzartuko direla; hala ere -jarraitzen du- “nik ez dut hitzarmenik sinatuko, sozietatearen zuzendari nagusia izango baita sinatzailea”.

Baina, Eusko Jaurlearitzan sartu arte (...)ren Zuzendaritza Batzordeko kide izan denez, eta elkarte horrekin hitzarmenak egiteko asmoa duenez, jakin nahi du EJKren irizpideen arabera ba ote dagoen “ohiz kanpoko egoeraren bat” bi erakundeek bi lan horiek egitea hitzartzeagatik.

Testuinguru honetan, apirilaren 9ko .../2013 Dekretuak, (...) Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoak, adierazitakoari jarraituz, (...)i dagokio “sozietate publikoaren kudeaketa ikuskatzea”.

3.- Batzorde honen irizpenaren mende jarritako gaia zehazki aztertu aurretik, adierazi behar da EJK-k interes-gatazkekin lotutako zenbait jokabide, jarrera eta portaera debekatzen edo eskatzen baditu ere, gai horretan indarrean dagoen araudia -eta, zehazki, kargua bete aurretik edo ondoren jarduera jakin batzuetan aritzeari buruzkoa- jasota dago Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunek eta haien parekatuek bateratu ezin dituzten jarduerak berariaz arautzen dituen arau juridikoan. Xedapen horretan diziplina- eta zehapen-araubidea aurreikusten da, eta, legezketasun-printzipioari jarraituz, lege-mailako xedapen bidez araututa dago.

4.- Horrenbestez, (...)k (...)ekin lan batzuk hitzartzeak, interesduna gaur egun (...)ko lehendakari izanik, eta Eusko Jaurlaritzan sartu arte, berriz, (...)ko Zuzendaritza Batzordeko kide izan zelarik, goi-kargudunen eta zuzendari publikoen bateraezintasunen eremuan indarrean dagoen ordenamendu juridikoa urratzen ote duen erabakitzea ez dagokio EBP honi. EBP honen eskumena da, soili-soilik, deskribatutako egoera EJKren inspirazio-iturri diren balio eta printzipioekin, edota bertan tipifikatutako jarrera, jokabide eta portaerekin bat ote datorren aztertzea, kontuan hartuta hitzarmen horiek ez dituela interesdunak sinatuko, zuzendari nagusiak baizik.

5.- Gaia horrenbestez kokatuta, EJKren 5.2.1 atalak, inpartzialtasunari eta objektibotasunari buruzko printzipioei dagokienak, hauxe ezartzen du: “Erabakiak hartzeko prozesuan eta, bereziki, beren eskumenak erabiliz egiten dituztenetan, kargu publikodun eta parekatuek beti jokatu dute inpartzialtasun- eta objektibotasun-printzipioen arabera”.

Agindu horrekin estu-estu lotuta, 5.2.4 atalak adierazten duenez, kargu publikodun eta parekatuek beren “eginkizunak zuzen betetzea eragotz edo traba dezaketen interes publiko edo pribatu oro aitortu behar dute, eta beharrezko urratsak egingo dituzte edozein interes-gatazka konpontzeko, organo eskudunei horrelako edozein gorabehera jakinaraziz, garrantzi txikieneko izanda ere. Horren ondorio da, halaber, erabaki guztiak interes publikoaren eta herritarren onurarako baino ezin hartu ahal izatea, eta guztiz baztertzea erabaki edo ebazpen bat hura hartzen duen pertsonaren, haren senideen, ezagunen edo lagunen mesederakoa nahiz edozein motatako interes partikularrek eragindakoa izan daitekeelako edozein susmo edo zalantza”.

6.- EJKren 6. atalak, batetik, kargu publikodun eta parekatuen osotasunari, inpartzialtasunari eta objektibotasunari lotutako jokabide eta portaerak biltzen ditu, eta, bestetik, hauxe xedatzen du: kargu publikodunek eta parekatuek jokabide eta portaera hauek izan behar dituztela, besteak beste, osotasun-balioari eta inpartzialtasun- eta objektibotasun printzipioei

dagokienez:

- “Ez dute egingo pertsona edo erakunde publiko edo pribatu batzuen alde edo faboritismo-nahiak eraginda jokatu duelako edozein susmo pitz dezakeen ezer.
- Inoiz ez dituzte erabiliko postu instituzionala edo karguaren ondoriozko pribilegioak zuzenean edo zeharka abantailak lortzeko norberarentzat, hala nola abantailak edo desabantailak lortzeko edozein pertsona edo erakunderentzat, betiere neurri horiek ez badaude babestuta indarreko araudi-esparruan”.

7.- Bestalde, Kodearen 11. atalak, onestasanari, desinteres subjektiboari eta interes-gatazkak saihesteari lotutako jokabideak eta portaerak zehazten dituenak, adierazten du interes-gatazkak sortzen direla goi-mailako kargudunek eta parekatuek beren “postu publikoaren interesekin batera norberaren interes pribatuak, zuzeneko senideen interesak edo hirugarren pertsonekin partekatutakoak agertzen diren kontuekin zerikusia duten erabaketan esku hartzean”.

Eta horren ondoren ezartzen ditu kargu publikodun eta parekatuek izan behar dituzten jokabideak, interes publikoen eta norberaren interesen artean gatazkaren bat dagoenean edo sor daitekeenean.

Gehienetan prebentzio- edo kautela-neurriak dira, interes-gatazkak saihestea helburu dutenak, jakina. Baina, horrez gainera, neurri horien xedea da goi-kargudun eta parekatuen jardueri lotutako balizko interes-gatazken inguruan sor daitezkeen kezka edo susmo guztiak errotik ebakitzea.

Jarraibide horiek irakurrita, erraz ateratzen den ondorioa da, EJK-k ezarritako onestasanaren eta desinteres subjektiboaren estandarra erreferentziatzat hartuta, gerta daitezkeen desbideratzeak saihesteaz gainera, balizko desbideratze horiei buruzko susmo guztiak ere desagerrarazi nahi direla.

Argi eta garbi prebentziozkoak diren jokabide horien artean daude, besteak beste, honako hauek:

- “Edozein erabaki edo jardueratan interes propioek eta interes publikoak talka egiten badute, horren berri eman beharko dute jendaurrean, eta inoiz ez dute ezer egingo baldin eta egin beharreko horretan zuzeneko edo zeharkako interes pertsonala badute, edo litekeena bada aipatutako interes-borroka piztea.
- Ez du inolako negoziarik edo jarduerarik egingo, zuzenean edo zeharka talka egin badezake interes publikoekin, edo zalantzan jar badezake erabakiak hartzeko prozesuaren edo Herri Administrazioaren funtzionamenduaren objektibotasuna.

- Bere betebeharrekin eta erantzukizunekin elkar jotzen duten edo egin dezaketen interes-gatazka posible baten eraginpean egon daitekeen kargu publikodun eta parekatuek berehala jakinarazi beharko diote hori Etika Batzordeari eta, idatzita ahal bada, gatazka horren berri eman beharko dute, edo, bestela, gutxienez, unean bertan edo etorkizunean balizko interes-gatazka bat egon daitekeelako zalantza jakinarazteko betebeharra dute.

Idazkiak berehala jasoko du organo horren erantzuna. Interes-gatazka bat pizten bada, edo gatazka hori egon daitekeelako zalantza sortzen bada, kargu publikodunak, erakundearen izen ona zaintzeko kautelazko neurri gisa, ez du esku hartuko ezer erabakitzeko edozein prozesutan, prozesuan esku hartuta interes-gatazka bat pizteko zalantza txikiena ere egonez gero.

- Kargu publikodun eta parekatuek, aurreko atalean aurreikusitako egoeretako batean badaude, nagusi hierarkikoaren esku utzi beharko dituzte bere ardurak, edo, bestela, egoera horietako ezeinetan ez dagoen saileko edo erakundeko beste kargu publikodunen baten esku”.

8.- 6/2013 gaian, EBP honek 2013ko azaroaren 4an emandako erabakian aintzat hartu genuen salatutako kargudunak EJKren aurka egin zuela, aste batzuk lehenago modu erabakigarrian parte hartu zuelako “sektore publikoan hasi aurretik lehen lan egiten zuen enpresari edo sozietateari kontratu bat esleitzeko” erabakia hartzean “soilik zortzi hilabete pasatuta hura utzi zuenetik”.

Kontratazio-espedita -orduan adierazi bezala- akatsgabea izan arren, eta kasu zehatz hartan benetako interes-gatazkarik aurkitu ez bazen ere, EJK-k aurreko zenbakietan aipatutako atal horietan lortu nahi duena da “guztiz baztertzea erabaki edo ebazpen bat hura hartzen duen pertsonaren [...] mesederakoa nahiz edozein motatako interes partikularrek eragindakoa izan daitekeelako **edozein susmo edo zalantza**” (5.2.4 atala), eta saihestea “pertsona edo erakunde publiko edo pribatu batzuen alde edo **faboritismo-nahiak eraginda jokatu duelako edozein susmo pitz** dezakeen ezer” (6. atala).

Nahikoa da goi-kargudun edo parekatuaren jardunbideak arrazoizko zalantza bat sortzea edo sortu ahal izatea haren onestasun, inpartzialtasun, osotasun edo objektibotasunari buruz, kodearen 5.2.4 eta 11.3 atalek hizpide dituzten kautelazko edo badaezpadako mekanismoak abian jartzeko: parte hartzeari uko egitea edo, bestela, aldeztu aurretik EPB honi kontsultatzea”.

9.- Baina, kasu hartan, gerta daitekeen interes-gatazkari buruzko arrazoizko susmo edo zalantza egon zitekeen, hain zuzen, esleipena egin zelako “sektore publikoan hasi aurretik [goi-kargudunak edo parekatuak] lehen lan egiten zuen enpresari edo sozietateari kontratu bat esleitzeko (...) soilik zortzi hilabete pasatuta hura utzi zuenetik”. Hau da, zalantza edo susmoa

sor zitekeen, hiru baldintza hauek bete zirelako:

- a) Goi-karguduna zuzenean pasa zen, enpresa esleipendunaren plantillatik zalantzan jarritako esleipena egin zuen kargu publikora.
- b) Aldaketa hori egin zen zalantzan jarritako lizitazioa egin baino zortzi hilabete lehenago soilik.
- c) Goi-kargudunak modu erabakigarrian parte hartu zuen esleipen prozesuan, eta berak **sinatu** zuen esleitzeko erabakia, sozietate publiko esleitzailerean zuzendari nagusia zen aldetik.

10.- Kasu hartan ez bezala, orain dagokigun kasuan interesdunak ez du pertsonalki parte hartuko adostutako lanen oinarri izango diren hitzarmenetan; izan ere, zuzendari nagusiak sinatuko ditu, horretarako sozietateak behar bezala gaitu baitu, Estatutuen 31. artikuluan oinarrituta.

31. artikulua.- ESKUMENA

1.- Administrazio Kontseiluak balioaz eta berariaz esleitzen dizkion eskumenak izango ditu zuzendari nagusiak, eta kontseilu horrek edozein unetan aldatu edo ezeztatu egin ditzake eskumen horiek.

2.- Zuzendari nagusiak zuzendaritza-batzorde baten laguntza izango du, eta sozietatearen egiturari dagokion eremu bakoitzeko zuzendariek osatuko dute batzorde hori. Sozietateko abokatua idazkari izanik, zuzendaritza-batzordeak beteko ditu zuzendari nagusiak agindutako zereginak.

11.- Aurreko puntuan adierazitakoaren ildotik ateratzen dugun ondorioa da ez gaudela interes-gatazka baten kasuan; izan ere, aipatu EJKren 11. atalean ezarritakoaren arabera, goi-mailako kargudunek eta parekatuek beren “postu publikoaren interesekin batera norberaren interes pribatuak, zuzeneko senideen interesak edo hirugarren pertsonekin partekatutakoak agertzen diren kontuekin zerikusia duten erabakietan **esku hartzean** sortzen dira interes-gatazkak”. Kasu honetan hitzarmena sinatzeko hautatutako erakundea ohiko enpresa pribatua izan beharrean “sektoreko enpresak” biltzen dituen klusterra izatea gorabehera, interesdunak hitzarmenak sinatzean zuzenean eta pertsonalki **esku hartuko ez duenez**, balizko interes-gatazkari buruzko zalantza edo susmo guztiak desagerrarazten dira.

Bestalde, lagungarria da lankidetzeta-hitzarmenak sinatzea ohiko jarduera izatea hitzarmena normaltasunaren alorrean kokatzeko eta horretan ez hautemateko gezurrezko interesek eragindako *ad hoc* jarduera bati buruzko susmo ongi oinarrituak pizteko moduko inguruabar berezi edo ohiz kanpikorik.

12.- Dena dela, edozein arrazoi dela-eta, (...)rekin hitzarmenak sinatzeko prozesuan, beharrezkoa izango balitz (...) S.A. sozietatearen Administrazio Kontseiluaren esku-hartzeren bat, orduan interesdunak, Administrazio Kontseiluaren lehendakaria den aldetik, parte hartzeari uko egin beharko lioke; izan ere, dagokion izapideak akatsgabeak izan arren, eta benetako interes-gatazkarik ez dagoela egiaztatu arren, EJKri jarraituz, ebazpena edo erabakia norberaren onurarako izan daitekeen susmo edo zalantza, edo nolanhiko interes partikularren eragina izan dezakeen susmo edo zalantza desagerrarazi behar da, hartara ez da egingo “persona edo erakunde publiko edo pribatu batzuen alde edo faboritismo-nahiak eraginda jokatu duelako edozein susmo pitz dezakeen ezer”.

Horren guztiaren ondorioz, EPBk hartu du honako

ERABAKIA:

Interesdunak ez du EJKren aurkako jokabiderik (...) S.A. sozietateak -interesduna lehendakaria izanik- eta (...) elkarteak -interesduna Administrazio Kontseiluko kide izan zelarik oraingo kargua hartu arte- bi lankidetzeta-hitzarmen sinatzeagatik, baldin eta ez badu pertsonalki eragiketan esku hartzen, eta sozietate publikoaren ordezkaria, aipatu hitzarmenak sinatzeko ondorioetarako, zuzendari nagusia izanez gero.

Dagokigun gaian gertatuko balitz Administrazio Kontseiluak esku hartu beharra, aipatu hitzarmenak egikaritzeari lotutako gorabeherak bideratzeko, interesdunak uko egin beharko lioke esku hartzeari.



Josu Iñaki Erkoreka Gervasio

Etika Publikorako Batzordearen lehendakaria

Vitoria-Gasteiz, 2013ko abenduaren 30a